

HIZKUNTZA, PENTSAKEREA ETA HERRIKIDETASUNA
LARRESORO BAITAN

Aurrez ^{*}esanak esanda, orain Larresororen Hizkuntza eta Pentsakera Etor 1972, obraren muina aztertzeraz igaroko ^{*}gara. Jarraipen honetan, aurrez esandakoaren erlazioan berri dena bakarrik aipatuko dugu. Eta berria ez denean, aurrekoa borobildu eta osatzen duena. Dionaren asko eta asko, aurrekoarekin berdina bait da.

1 - Hizkuntza eta Inkontzientea.

"Hizkuntza erroa Inkontzientean dago" (25'en orrialdean) Eta erro hori, giza-izpirituaren taxutu-beharra izendatuko du : "Badago funtsean, ez da dudarik, hizkuntzaren sorreran, hauen guztien sinbolismoaren erroetan baretan, hizkuntza-fasunaren iturrian bertan alegia, giza-izpirituaren taxutu-beharra (Inkontzientea, hain zuzen, gautko psikologiaren iritziz)" (43'en orr.) Are oraino, taxutzeko erabiltzen ditugun moldeak eta eskemak ere inkontzienteak zaizkigula, esango zaigu : "Taxutu-behar gorri hau inkontzientea da ; eta taxutzeko erabiltzen ditugun moldeak edo eskemak ere errepara-ezinak edo inkontzienteak zaizkigu. Gizonaren pentsa-moldea, beraz, funtsean, inkontzientea da" (67'en orr.) Inkontzientearen mugak ere zehazten ^{*}ahazginduko ^{*}da : "Inkontzientea "metafora" eta "metonomia"ren jopu ^{*}da ; ez logikarena" (95'en orr.) Finean, gizonaren inkontzientea, hizkuntza izkutua ^{*}deituko du, honela hizkuntza mintzatuagandik bereztuaz ^{*}: "Guztiz normala da, beraz, gizonaren inkontzientea hizkuntza izkutua izatea ; eta darabilen sinbolokuntza hizkuntza mintzatuaren aurreragoketaz izatea" (98'en orr.) Guzti hau horrela, hizkuntza materiarekiko borrokak eta produzio-beharrak sortu ^{*}dukete hizkuntza, beraz, produzioaren ekintza elkarri mintzatu beharrez" (105'en orr.) Eta etsaitzat hartzen dituenen aurka ^{*}argudiotuko du : "Herri arkaiko askotan, EZERTARAKO BALIO EZ DUTEN GAUZA ^{*}ASKOREN HIZTEGI ABERATSA AURKITZEN DA." Zenbait jakintza-adarretan badirudi giza-izpituak taxutu egin nahi duela mundua baliogarritasun eta produzionetasun xehe guztietatik lekora" (106'en orr.) Gainera, afasikoak deituko ditu ^{*}berak ; "Hitz batez, afasiko hoteiek ez dira gauza fenomenuen multzoan taxuketa edo estrukturaketa egiteko, eta horregatik galtzen dute mintzamina. Mintzamina eta estrukturamina, beraz, afasiaren aldetik aztertirik, elkarri hertsiki loturik agertzen dira" (110'en orr.) Hara zer nolatan definitzen duen afasikoa : "Tresnatasunetik eta ekintza-beharren mailatik gora igotzen ^{*}ez dena da afasikoa. Ez gizon norma ^{*}da ; ez gizon, gizona, beraz. HIZKUNTZA GORAGO EDO AURRERAGO DAGO TRESNATASUNAK ORO BAINO" (115'en orr.) Eta bere aburua ematen du : "Gizatesunaren gakoa, eta egiazko giltzarria, ^{*}besterik dira : ESTRUKTURAMENA DA GIZONAREN GILTZARRIA" (118'en orr.)

● duela diotenen aurka dator : "Matèriarekiko borrokak eta produzio-beharrak sortu

Guzti honetatik ondorio dezakeguna zera da : hizkuntza sorrerako kausa, gizonak barrenenean itsatsirik ^{*}duen, giza-izpirituaren taxutu-beharrera mugatzen duela Larresoro. Eta hori absolutuki baieztatu ^{*}da. Zeren hizkuntzaren sorreran materiarekiko borrokak eta produzio-beharrak parterik izan dezaketenik ez bait du pittinenik ^{*}ere onartzen. Erlatibismaren izenean, determinisma berri hau ezartzen digu. ^{*}Batak eta besteak dutela zerikusirik aitortzea ez al da justuago ? Hitzaz, ez da noski, materiarekiko borrokaren fruitu. Baina hizkuntza bilakatzekean ez dago dudarik horren influentziarik ba dagola. Zeren bestela, nola esplikatu, euskara artzantzari dagokionean, esate baterako, ^{*}hain aberats eta berezitasunez beterik agertuz gero, euskal giza-izpirituaren taxutu-beharrak,

gaurdainokoa, filosofia-abstrato alorrean, aberastasunik ez sortu izatea, esentziaz ezinezko zaiola baieztera igaro behar al gara? Baieztu izan den bezala, noski. Taxumen-neharra, gizonak beregan itsatsita badu ere, herrenbeste urtez, bizibide xehe eta mugatu batetan bizi izana, hots, materiarekiko erlazioa edo giza esperientziaren kanpoa ez da gutxiago ikusi behar hor, guzti hori seriooki eta osoki esplikatzeokoa. Zeren nola bata hala bestea, defenditzen dutenei Inkontzientean argi bila entseiatze komuna bait zaie, hots, azaleko arrazoinan osoki ez fidatzea. Materia, maila askotan eta hegi ezberdinetan bilakatzen bait da, ekintza eta fenomeno bakoitzean. Hitz batez, edozeinentzat ere Inkontzientea, ikerketa kanpo bait da.

2 - Hizkuntza : estructures, etnia, sinbolismo.

Hizkuntza, estructures dela, esango da. Baina estructuresak, maila eta molde anitzetarikoak litezkelarik, hizkuntzarena, logikoa ezik etnikoa dela ondorioztuko da : "Estructures horiek ez direla logikoak etnikoak baizik". (21 eta 22 orr.) Geroago ikusiko dugu, zertan dagoen hizkuntza estructuresaren ez logikotasuna. Orain bada, etnikoa-ren mugaketa aipa dezagun : "Etnikoa, herri horren belaun guztien arteko moldaketa delako" (39'en orr.) esango zaigu. Eta areago igaroaz : "Hizkuntzak azterpide berezia ematen dio etniari"... "Hein batean, beraz, baldin du egiten du hizkuntzak gure pentsakera. Eta hizkuntza etniaren oinharria denez geroz, etniaren funtsa, herriaren herritasunaren sostengua, honetara, gaurko estructuresalisten iritziz, hizkuntza da..." Azken oharra, dena dela : hizkuntza ematen duen pentsakera hori ez dela, noski, ez burjesa, ez langilea, eta ez deus horrelakorik. "Koska" hori ere jarri bait didate batzuek ! Behin eta berriz liburu honetan agertzen den bezala, pentsakera hau ez da politikaren mailakoa, LOGIKAREN MAILAKOA BAIZIK ; askoz ere sakonagoa, beraz. Gero logika-atomo gisa erabiltzen duguna, hizkuntzaren taxukeraren ondorio da ; eta maila eta alde honetatik, hizkuntza da pentsakerearen moldea eta baldinkizuna" (41'en orr.) Hildo beretik : "Etniak osatutuko hizkuntzak markaturik eta baldindurik gaude denok : haren gramatikari eta kategoria izkutuei datxeen moldaketan hoziturik abiatzen gara denok, nahi ala nahi ez" (44'en orr.) Ikur berean jarraituz : "Beste hau sinesten dute : pertsonak bere gizaro eta girotik jaso duen HIZKUNTZA-ESTRUKTURA dela, funtsean, munduari buruzko bere ideia nagusiaren moldakerearen kaxoa" (46'en orr.) Finean, objetiboa eta etnikoa oposatuko ditu : "Kaso mutur hauetan garbi agertzen zaigu estructuresalitek behin eta berriz agerrerazi duten fenomenoak : fenomenoaren taxuketa EZ DELA OBJETIBOA, ETNIKOA BAIZIK. Ez dagoela taxuketa logikorik. Honela balitz "bitxikeria" horiek ez luteke sentidurik ez azalpenik" (56'en orr.) Beste urrats bat emango da, hizkuntzaren estructuresa, sinbolismuan konkretatzen dela aitortzean "Era berean gure pentsamentua eta kultura bera : "alde aurrenik hizkuntza den sinbolismoa gabe, ez bata eta ez bestea zirakeen jaioko, Hizkuntza pentsamenduaren arau eta moldea da egiazki" (42'en orr.)

• honetan

Hemen, Larresorok etnikoaz duen pentsakera bereziki markatu beharrezko deritzaigu. Zeren etnikoa, herri honen belaun arteko moldeaketa dela aipatuz gero, hizkuntzak (fenomenu etnikoak) ematen duen pentsakera, ez burjesa, ez langilea eta ez deus horrelakorik ez dela aitortuko bait da. Orduan, etnikoa zer da paradisu bat edo gizarte komunista bat ? Klase gabeko utopia bakarrak, bi hauk bait dira. Areago igaroaz dio : pentsakera hau ez dela politikorearen mailakoa. Gauza bat da politika kontzientea. Modu honetan, langileriarene politikazko kontzientzia bera, arras berria da. Beste urrats bat dago, politika kontzientzia hori organizatu eta estructuresatu bilakatzen denean. Eta guzti hauek aitzineko da politikoki inkontziente izanik, praktikaz bilakatu den klase hizkuntza. Azken ikur honetan, hizkuntza osoki muga liteke bere etniazko konteniduan inzidentzia izan duten klaseen baitara. Adibidez, Aitatxi, Aita-Aita,

• guztien

Aitona, Aitajauna hitzak ba dute etniazko konteniduan klase inzidentzia xeherik.

3 - Hizkuntza estrukturaren ez logikotasuna

Dagoeneko zenbait bider* seinalatu dugu estruktura, etnia eta abarren ez logikotasuna. Orain xehekiago, aztertzen ahaleginduko gara honen mamia : "Etnia eta logika kontra jartzen dira" (17'en orr.) Baina zer logika kontra jartzen dena ? Zeren logika kanpo eta maila anitz bait dago. Ikus dezagun : "Hizkuntzen estrukturek eta "logika" abstrakto delakoak ez dute lotura haundirik elkarrekin" (40'en orr.) Halere, Brankako artikuluetan eta hemen bertan zenbait aldiz ematen duen inpresioa, hots, logika oro baztertzen duen inpresioa, ukaturik agertzen zaigu, dionean : "Levi Strauss-ek (...) Levy Bruhlen kontra gogorkiro hitzegin duelarik, beti agerrarazi du estrukturalisten ideia nagusi hau : izkutuan ari den Inkontzientea, taxumen edo ideia-antolamen LOGIKOA dela, bai ; ez dela mistikoa axalean baizik" (53'en orr.) Areago oraino : "Baina hizkuntza guztiak ez dira liburu honen lehen partean azaldu dugunez, logika bakar baten "aldiak" edo "faseak. Aitzitik, eta hein batean, hizkuntza bakoitzari logikataxuketa berezia dagokion bezala, logika Bakarrik eta letra nagusikorik ez dago" (73'en orr.) Benetan*duda-mutatik irtetzea* komeni zaigu arlo honetan. Izan ere, Inkontzienteak ere ba du bere Logika. Areago, zoriak edo halabegarrak ere bai berea. Eta zer esanik ez, kontzientearen Logika ez logikak ere ba direla, Nola ez aipatu, gure gizartea bera, politikoki hierarkiaren logikaz muntatua ageri zaigula, erreformismo legetu eta instiruzionalizatuan bizi diren Herrietan, eta politikoki bipolarra den logikaz darabiltzela iraultza bidean sartuak direnek eta funts dutenak. Besterik da, Logika-abstrakto edo filosofikoaren jakintza maila, etnia, estruktura eta abar errealidade analizatzekean desegoki gertatzen dela.

4 - Estrukturalismo : kondaira buruzko teorien ukoa

"Bi azterpide-mota egin daitezke : bata diakronikoa, kondairazkoa ; eta bestea sinkronikoa, estrukturala..." "Hizkuntzaren kondairatik hizkuntzaren estrukturetara pasa gara" (5'en orr.) Analizatu nahi dena, orduan, estrukturak dira : "Badago, beraz, inmanentzia gisako hizkuntzetan" (28'en orr.) Gainera, inportantziarik duela agertuko da : "Bitxikeria" hauek aztertuz aurkitu dut nik, hain zuzen, Whorf eta Sapir lagun, euskara zaharrak, beste zenbait hizkuntza urrunek bezala, denbora alegiazkoa (mitikoa) eta egiazkoa (kondairakoa) berezten zituela" (57'en orr.) Eta ondiorotzen da : "Whorf-en ustez, beraz, DENBORAREN AZTERKETA da izkuntzen funtsaren argitzaile nagusia" (62-63'en orr.) Honela, etsaitzat hartzen direnen aurkako argudiotan bilakatzen da guzti hau dionean : "Hegeldarren,* ustez (eta marxisten ustez gauza bera, jakina) bakar bat da kondaira ; anizkorra, aldiz, estrukturalisten ustez. Geroxeago agertuko dugunez, etnien izana bera, munduaren bakuntzarako* bidean "igaroko den zerbait" da marxistentzako" (74'en orr.) Behin eta berriro guzti hau berrituko du : "Kondaira famatu hori, beraz, taxuketa da aurrenik, eta hizkuntzaren taxuketaren kide hutsa"... "Horregatik eman daitezke gertaera-sail berberari buruz anitz azalpen "logiko". Kondaira-mota eta azalpen guztiak "maila berean bait dira egiazko"... "Kondairaren Azalpen Logiko Bakarrik ez dago : AZALPEN BAKAR ETA OBJETIBOAREN TEORIA MITHO HUTSA DA..." "Ez dago, hitz batez, Kondairaren azalpen "objektibo"rik. Marxisten "kondaira-materialismoa" ez da zientifikoa, mitoa baizik" (76'en orr.) Ondoriatuko da : "Kondairaren teoriak oro, honetara, alienazio hutsa dira" (101'en orr.) Gainera herri arkaikoen pratika kontra jarriko da : "Herri arkaikoetan, hain zuzen, ez

dago gizadi osoaren ideiarik : beti gizadia eta gizatasuna bera leinuaren edo hizkuntzaren mugetan bukatzen da... kultura desberdinekiko joera hori gizadia bezain zaharra da" (78'en orr.) Finean, kondairaren inkontzientea klase ikuspegiz miatzen dutenen kritika egingo du : "Eta, geronen baloreen arabera, hau dio : matxinada hartan (burjesia/proletaritzaz) edo (aiton-semeria/nekazaritza) bikotearen gatazka bilatu behar da : ez da posible besterik izatea. Gertakari-ek BIRPENTSATZEN DITU, eta "argitzen". Bistan da : argitzapen hau "modakoa" da eta laister biltzen ditu bere alde populuen txaloak. Orduan, "ulertu" egiten dugu gertaera iluna, lasaiago gelditzen gara eta aurrera" (101'en orr.)

Ohar zenbait egingo diogu Larresoren aburu multzo honi. Lehenik, Hegel-ek, Marx-ek eta abarrek, kondairaren zehar hegiren bat beti eta nunahi agertzen dela esan digutenean, ez da noski, hegi horren bilakakera dela kondairaren sustrai absolutua esan dutenik. Eta sustrai absoluto izanik, gaineatiko oro arbuigarri denik. Baldin horrelako ideiak populoan jaso balitezke ere ez dut uste jakintsu hauen aburuan sinplekeria horrek kabidarik zuenik. Bigarrenik, Larresoren azterketa serioa balitza puntu honetan, argitu behar lukeena zera pitzake : adibidez, lehen akumulazioaz gero, klase inzidentzia ez dela gizarte ekintza guztietan ematen. Baina hori ez digu frogatzen. Eta hori, bezala gaineatiko beste hegi aipatu horiek. Hirugarrenik, giza-izpirituaren taxu-beharra kondairen zehar beti eta nunahi agertzen den hegi bezala ekartzen du (hizkuntzaren esistentzia testigu). Eta molde honetan, kondairaren teoriar erortzen direla digun horien pareko egiten da. Finean, kondaira birpentsatzea, jakintza maila anitzen eginkizuna dela esango diogu. Eta hori egitean, jakintza guztiak inkontzientea miatzen entseiatzen direla. Zeren kontzienteki erlijio borroka izan zen Erreforma, beste ezer zen galdetzea eta aztertzea zilegi ez al da ? Hori bera ez al du egiten Levi Strauss-ek gizarte arkaikoekin ? Eta horrelako azterketa eginez gero, Max Weber bezalako jakintsu batek protestantismoak eta kapitalista izpituak sorreran izan dute har-emana eta zerikusia agertzen digunean, txorakeria al da ? Hori ez da marxista eta susmogarria, baina burjesia/proletaritzaz variantea onartu eta bere esistentzia frogatzen du. Eta hori guztia, kondairaz kontzienteki kontatatu zaiguna bezain erreala, izan da, Erreforma.

5 - Estrukturalismak : ez, aurreparen eta superazio ideiei

Kondaira balore absolutu batzuen baitan epatizean hierarkia bat egin ohi dela, egia da. Baina balore horiek erlatibizatzen ditugunean ere kondairak bere hierarkiarik izaten jarraituko du. Dударik ez, eskema bakar bat absolutuki ez dela egokituko, baina horrekin aurrerapenaren essentzia eta esistentzia ukatu gabe, noski. Halere, Larresorok aurrerapena eta superazioa hizkuntza arloan ukatuko dizkigu. "Ez dago, beraz, ez hizkuntza aurreraturik ez atzeraturik. Hizkuntza guztiak dira, zein bere erara, giza-esperientziaren taxuketa oharkabe edo inkontzientek ; baina denek sakonak eta funtsezkoak"... "Zeren eta hizkuntza sailean aurrerik eta atzerik ez bait dago, pentsakera edo atzerkera logiko berbearen "aurrerapenik" ere ez dago" (53'en orr.) Arrazoi du, egungo hizkuntza hedatuenak esentzialistaki ahalmentsuenak eta gaineratisukoak baino sakonagoak egiten dituztenen aurka, hizkuntza guztien ahalatasuna eta sakontasuna seinalatzen bada, Baina hortik egungo hizkuntza guztiak aurrerapen berdina dutela nahiz hierarki sistema desberdinak aurkitu, ondorioztatzen badu, ez dela justua bere epaitza esango dugu. Zeren bestela, har dezagun euskara bera,

eta denon lehen bistara inposatzen zaiguna da, Etxepare-ren garaikoa eta egun-
goa desberdinak direla. Gutxienez, orduan, aldakuntza bat dagoela hizkuntza ber-
beraren barrenean. Aldakuntza hori ez dela aurrerapena*? Balore sistimen alda-
kuntza bakarrik seinalatzen digula? Orain ikusten duguna zera da: gaurko eus-
karak gutxienetik balore sistema gehiagoren ondorea*duela. Zer ondoriotuko dugu?
Aurrerapen*kontzeptua bera erlatiboa dela? Bai, noski! Baina erlatibotasunak
ez du bere esistentzia ukatzen. Hildo honetatik doa dionean: "Ez dago, beraz,
aurrerapen oso eta guztizkorik: aurrerapena beti ere helburu eta balore mordo
BATI BURUZ egiten da, eta letra txikitan idatzi behar da" (75'en orr.) Eta are-
ago berriz: "Bai-dio-badago aurrerapena; baina ez aurrerapen absoluturik, kul-
tura guztien balioa eta norabidea errelatiboak direlako. Kondaira metatzaile
den mendeetan, kultura horren barreneko gizonek "aurrerapen" baten segurantza
dute. Eta, horregatik, erreferentzi-sistema aldatu arte, "aurreruntz" doazela
sinisten dute" (8ē'en orr.) Beste batetan dio: "Badirudi, ordea, aurrerapen
hori "mutazio obratzen dela, jauziz" (80'en orr.) Baina, berezkuntzarik inpo-
satzen du aurrerapen tekniko eta kulturalaren artean" Teknika aldetik - dio
Levi Strauss-ek - dudarik ez dago: harrizko tresna mordoiloetatik harrizko
tresna landuetara, horretatik burdinezkoetara, eta abar, gauza nabarmena da,
aurrerapena: tresna horiek geroz eta manainkorrago dira, gero eta hobeak, gi-
zona trebeago egiten dute" (80'en orr.) Baina hain absolutuki aurrerapen tek-
nikoa eta kulturala berez al litezke? Hor dago "koska". Beti kultura arloan
ibiliaz ondoko hau ondoriotuko du: "Elkarren "superazioak" eta gaindikuntzak
mithoak dira: kulturek ez dute elkar gainditzen edo superatzen, IKUSPUNTUA
ALDATZEN BAIZIK" (80'en orr.) Baina kulturek ikuspuntua aldatzen, tekniken
aldetik aurrerapenarekin koinziditzen bada, bata eta bestea har - emanean
ez al dagoz? Berezkuntza absolutuegia dugu ikusten Larresororen agerpenean.

6 - Estrukturalisma : Zientzia eta Egia

Halere, kulturazko aurrerapena ukatuz gero, Zientzia eta Egia letra
haundiz idatziko dizkigu Larresorok. Ikus dezagun nola egiten duen: "Zientzia
hitz batez, eta Egiari berari hobeki, benetan errespetoa dioteneke, hizkuntzaren
izanari buruz jarduterakoan*afasiaren erakaspak behar lituzketa kontuan hartu"
(103'en orr.) Eta beste pasarte batetan: "Langintzak eta mintzamenak, lanabesen*
produzioa eta giza-gogorik sakonena, hitz batez, "moda" ko iritziek nahi luketen
baino deslotuagorik daude. Eta Egiaren ohoretan hala aitortu beharra dago, eta
ideia-ondoreak atera" (120'en orr.) Harrigarria deritzaigu, Zientzia eta Egia,
molde honetan, letra haundietan idatzirik, Larresorok onartzea, egin dituen
erlatibisma problemak*ez badago, Zientzia eta Egia ere, estatikoak ote dira?
Ezer letra txikietan idatzi behar bada, zientzia eta egia, bai molde horretan
idaztekoak direla. Nola bata hala bestea zeharo bilakakorrak bait dira. Halere,
Larresorok aurrerapenari eta gainditzeari buruz egin dizkigun baiezkuntzak egi-
naz gero, logikoki hizkuntza arloan gutxienetik, zientzia eta egia kontzeptuak,
ukatu egin behar zituen, noski, Baina bere ausardia*horretaraino ez da ausartu*.
Hor dago erlatibismaren ikurrina jasotzen dutenen "koska". Erlatibisma postura
zientifikoa da, noski, baina erlatibismaren absolutua proklamatzek giza-izpi-
rituaren kulturagintza guztiaren ukazio osoenera garamazki* Giza montaje kul-
turalak aldakorrak eta erlatiboak badira ere, horietan darabilgun zenbait ele-
mentu baztertu ezineko bait da. Mila bider frogatuak bait dira bere esistentzian.
● eginda gero. Hizkuntza arloan eta kulturagintzan aurrerapen eta gainditzetik

7 - Erdal esturkturak eta euskal esturkturak

Larresorok eraman gaituen itsas hondar gabe honen sakonean, finean, gauza xehe eta mugatuenarekin aurkitzen gara. Eta bere agertzeko moduak eta testuinguruak, ziurtasun*eta sinismen gütiz onartzen duela erakusten digu. Orduan, ala-fede ! dena ez da, erlatibu eta ikur gabe edo denbora pasa, gizon honen kultur entseian. Hara nola "Argi ikusten da erdal esturkturetan erabilitako grafia (boskuna) gaizki egokitzen zaigula ; baina euskal azterketa sakonik eta ausartarik ezaz, gutxi gorabeherako itzulpen "kolonial" bat besterik ez zaigu gelditu eta irentsi*egin digu eta ontzat eman..." (32'en orr.) Hildo beretik : "Funtsezko erdalkeria legetu digu" (35'en orr.) Eta beste hau : "Alegia : erdal esturktura dira onak, logikoak eta gogoangarriak... Euskararenak, berriz, bitxiak, arloteak, zelebrea*, arkaikoak, nik dakita zer besterik ?" (46'en orr.) Izan ere kultur harrokeriak*eta arrazakeriak leporaino hartuta gaguzkala* nor ukatuko du ? Larresororen entsei honek hori salatzeke eta gainditzeko bidean zertxo bat serbitzen badu, bere itxuragabekeriak salbu, Euskal Herriari eta gízadiari mesederik*egingo dio.

BEGIKO

HIZTEGIA

Aurrez : aitzinetik
 Igaroko : pasatuko
 Taxutu : itxura eman
 Sorreran : sortzean
 Zehazten : xeheki ematen, xehe egiten
 Ahalegindu : eginaholak egin
 Jopu : esklabo; mutila, meneko
 Izkutu : gorde
 Bereztuaz : berexiaz, bereziaz
 Aurka : kontra
 Argudiotuko : arrazoinak emanen
 Ez dira gauza : ez dira gai, ez dira kapable
 Igortzen : igaten
 Giltzarria : giltza-harria - giltza : gakoa
 Itsasirik : atxikirik, loturik
 Baiezten : afirmatzen
 Pittin : piska, puska
 Digu : dauku
 Esate baterako : errateko manera
 Mugakets : definizioa
 Belaune : belaunaldia : generazioa
 Arego : urrunago, haratago
 Azterpide : ikertzeko eta aztertzeke-bide
 Baldindu : baldintzatu - kondizionatu
 Iritziz : ustez, irudiko
 Didate : dautate
 Askoz ere : anitzez

Sakonagoa : barnagoa, barnekorragoa
 Jarri : ezarri
 Baldinkizuna : kondizionamendua
 Datxeken : atxiki aditza : hura hari datxeko (il lui adhère) hura haieri datxeke
 Hoziturik : liliturik, loraturik (horitxu = hostoak landarretan sortu)
 Ikur : signa, seinale, erranahia (sens)
 Zirakeen : ziren nonbait
 Deritzaigu : iruditzen zaigu
 Bider : aldiz
 Benetan : zinez, egiatan
 Irtetzen : jalitzea, ateratzea
 Kondairazkoa : historikoa
 Hegeldarren : ehgelisten
 Bakuntzarako : baettaratzerako
 Gizadia : gizonak ozo
 Leinua : jatorria, jitea (origine)
 Geronen : guhaurren, gerauen
 Matxinado : erreboluzioa, iraultza
 Aitonon-semeria : noblezia
 Txaloak : esku-zartak
 Aburu : uste, iritzi, iduri
 Zehar : gaindi
 Diguñean : daukutenean, daukutelarik
 Sustraia : erroa
 Kabiola : kabila, oinbular
 Digu : dauku
 Testigu : lekuko, (témoin)
 Zilegi : legeen arabera haizu dena
 Susmogarria : sospegarria
 Dizkigu : dauzku, dauzkigu
 Superazioa : gaingitzea
 Ondorea : konsekuentzia
 Aurretik eta atzetik : aintzientik eta gibeletik
 Aurrerapena : aintzinamendua
 Dagoz : daude
 Jarduterakoan : iharduterakoan, ihardukitzerakoan, aritzerakoan
 Lanabesak : laneko tresnak
 Ausartu : atrebitu
 Garamazki : garamatza : eramaten gaitu
 Ziurtasuna : segurtasuna, segurtamena
 Irentsi : iretsi
 Arloteak : kakolak
 Gaguzkala : eduki aditza : harek gu edukiten gaituela
 Zelebreak : bitxiak
 Mesede : zerbitzu